

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRIETAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2019ko lehen seihilekoko ordainagiriak

Arrietan etxeak edateko urez hornitzearen tasako 2019ko lehen seihilekorako errolda gertatu da eta hamabost egun baliodunez jendaurrean egongo da, honako iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik kontatzen hasita, interesa dutenek hura aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Arrietako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko irailaren 12an hasi eta urriaren 12an bukatuko da, biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2019ko urriaren 12an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Arrietako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaruarekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arrieta, 2019ko abuztuaren 8a

Lehendakaria

AITOR ALVARO RUIZ DE EGUILAZ